# AECC (Minbiziaren Aurkako Arabako Elkartea)



Arkupe-plaza kalea, 1 (Zabalgana)
945 26 32 97
alava@aecc.es
www.aecc.es

Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartea ongintzazko GKE asistentziala da, irabazi asmorik gabeko erakundea, paziente, senide, boluntario, laguntzaile eta profesionalek osatua.

Espainia osoan egiten dute lan. Osasunean hezteko, gaixoei nahiz haien familiei babesa eman eta laguntzeko eta minbizia hobeto diagnostikatzeko eta tratatzeko bidea emango duten ikerketa-proiektuak finantzatzeko lan egiten dute.

Erakundeen (Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia eta Udala) eta enpresa pribatuen laguntza dute, baita bazkideen ekarpenena ere. Elkarte Nazionalaren aurrekontuaren zati bat ikerketa-proiektuetarako da.

## Fundación Vital Fundazioaren lankidetza

**Vital Fundazioa**AECC Alavarekin elkarlanean ari da 2007tik, eta ekarpen orokor bat bideratzen du bere proiektuetara**:**

**Prebentzio-programak**(erretzeari uzteko terapiak, hitzaldiak ikastetxeetan, prebentzioa arrisku handieneko kolektiboetan, azaleko minbizia prebenitzeko kanpaina, minbiziaren aurkako munduko egunak eta minbiziaren aurkako ikerketa).

Komunikabideetan komunikazio-kanpainak garatzeko ere erabiltzen dugu gure lankidetza, AECCren **Martxa Solidarioa** Vitoria-Gasteizen eta Arabako beste herri batzuetan, kartelak editatzea, liburuxkak, **Estadio Fundazioan** eta Mendizorrotzan azaleko **minbiziaren aurkako sentsibilizazioa**, **ongintzazko jaialdiak** egitea eta abar.

**Fundación Vital Fundazioa**
Kordoi Etxea, Aiztogile 24, Vitoria-Gasteiz
945 776 858
info@fundacionvital.eus